



ITXAROBIDE

Hiesaren Aurkako Mundu Mailako Eguna

ADIERAZPENA 2020KO HELBURUA

GIB BIDEZKO ZERO TRANSMISIO:

PREBENTZIOA ETA TRATAMENDUA, ESTRATEGIARIK ZIURRENA

Nazioarteko Komunitateak, Nazio Batuen GIB/HIESAren programa bateratuen bitartez (ONUSIDA), 2020 urterako GIB bidezko zero transmisio izatea planteatu du helburu gisa. Helburu hau bideragarria da, beti ere sexualitate osasuntsuaren promozioa, kondoiaren erabilera, GIBaren antzemate goiztiarra eta tratamenduekiko heltze unibertsala baldin badago. Beraz egoera itxaropentsu baten aurrean gaude, 2020an zero GIB bidezko transmisio helburuaren lorpenari dagokionez. Helburu honi gehitzen zaio, GIBa errotik ateratzea lortzeko egiten ari diren esfortsu zientifiko guztiak, gutxienez, GIBaz bizi diren pertsonen osaketa funtzionala lortzeko.

Beraz esparru zientifikoan garai oparo baten aurrean gaudela esan dezagu, aldiz esparru sozialean porrot garai batean bizi gara. Izan ere, GiB/HIESAri atxikiak doazen estigma eta diskriminazioak pandemiaren kontrola zaildu eta oztopatzen jarraitzen dute, beraz Nazioarteko Komunitateak, osasun arloko profesionalek eta GIB/HIESAren erakundeek finkatutako helburuak arriskuan jar ditzakete.

ONUSIDAK proposatutako helburuak lortzeko, funtsezkoa da:

1.- Instituzioen konpromezua GIB/HIESA lantzen duten erakunde eta gizarte zentruetara, beti ere beraien esperientzia onartuz eta iraunkortasun ekonomikoa ahalbidetuz. Elkarrekin beti izan garelako, eta hala izaten jarraitzen dugulako, egoera berrien aurrean beharrak antzeman ditugunak, konponbideak proposatu ditugunak eta arrisku egoeran dauden pertsonetara iritsi garenak.

2.- Gizonezkoen arteko sexu harremanen ondorioz emandako GIBaren transmisio berrien inzidentzia murriztea, horretarako egun dauden aukera prebentibo guztiak martxan jarri.



ITXAROBIDE

3.- Drogen kontsumoa, kalteen murrizpenaren ikuspegitik lantzen dituzten programen indartzea eta murrizketarik ez jasatea. Izan ere, programa hauek Espainian izurritearen kontrolean asko lagundu dute.

4.- Osasun publikoan pertsona oroentzako sarbidea, beraien lan edo egoera administratiboa kontutan izan gabe.

5.- KONPROMEZUA: Gizarte osoaren aldetik GIB/HIESaren froga egiteko konpromezua. Norberari ere tokatu ahal zaiola pentsatzeko eta onartzeko ausardia izatea. Eta azkenik GIBa infekzio kroniko bat izanda ere, bizi bete eta kalitatezko bat izan daitekeenaren ideia onartu eta barneratzea. Beraz utz diezaiozun infekzio honen estigma indartzeari.

Benetako aldaketa bat nahi dugu eta orain nahi dugu.

Ezin dugu itxaron, hau da unea. Posible da. guztion etorkizuna da eta itxaropenez beteriko data bat du. Idatz dezagun historia eta iritsi gaitezen garaiz 2020ko hitzordura.